

ERRIGARA

renbakia


JARDUN Elkarte Bergara

1994, ekainak 10



Haurren Euskal Jaia igandean

LARRAÑAGA Autoeskola



HERRIEN EUROPAREN ALDE



EUROPAN TINKO LANEAN

Eusko Alkartasunak Europako Herrietako nazionalistekin bat egin du aurreko legegintzalditik hona burutzen ari den lanari jarraipena emateko, ondoko helburu hauek lortzeari begira:

- ★ Pertsonen gehiago arduratuko den Europa bat eratzea, solida-rioagoa eta mundu osora irekiagoa izango dena.
- ★ Lehenbailehen GIZARTE EKINTZARAKO PROGRAMA gauzatzea (50 milioi europar pobrezia larrian bizi dira, 17 milioik ez dute lanik eta 30 milioi etxerik gabe daude).
- ★ Ingurugiro Politika askoz ere zorrotzago bat burutzea, eguratsa-rekiko, lurzoruarekiko eta gai arrisksuekiko kontrol gehiago duena.
- ★ Europako Herrietako hizkuntza eta kultura guztiak elkarrekin bizi eta garatu daitezela lortzea.
- ★ Ekintza eraginkorrak burutzea Europa zentralizatzaile eta garden- tasun gutxiko horretan, Herrien eta Eskualdeen partaidetza gehiago aitortu eta onar dadin.
- ★ 1996ko erreforman Europa federalaren alde lan egitea, funtzio- namendu eraginkor eta demokratikoa ematen saiatuz, batasunaren oinarria herriaren eta herriengan egongo litzatekeelarik batipat.
- ★ Fondoan eta Baliabideen funtzionamendua hobetzea, nazionalitate eta eskualde guztietan aurrerabide-iturri berriak sor daitezen.
- ★ Enplegua ugaritu dadila bultzatzea, dagoen lana banatzen ere ahal-eginduz, eta Lanaren gaineko zergak murriztuz.
- ★ Sektorekako Politiketari finkatutako helburuak lortzea (Nekazaritza, Arrantza, Industria, Azpiegiturak, Hezkuntza eta Komunika- bideak), lan horretan Eusko Alkartasuna Europako nazionalistekin batera ari delarik.



Europa zuzenago bat eraiki behar dugu, Herrien Europa bat, dagokigun Autodeterminazio eskubidea bideratuko duena, Europako Batasun Politikoaren barne Euskal Herriaren lurralde batasuna eta bere independentzia lor ditzagun.

**EMAN
BOTOA**

EA
**eusko
alkartasuna**
Herrien Europaren alde


Z E R B E R R I D A ?

JOSE ANTONIO MATURANA

Etxebizitza eta Hirigintza sailburua

- Nola baloratzen dituzu Artzamendiko etxebizitza sozialak?

- Oso azkar egin dira eta benetan oso pozik gaude lortutako emaitzarekin. Etxebizitzen inguruan dagoen eskakizun sozialari aurre egin nahi diogu; baina ez bakarrik errenta baxua dutenei zuzenduta. 1.900.000 pta. eta 6 milioi artean irabazi ezkerro etxebizitza horiek eskuratzeko aukera dago. Aurten gainera 18 urtetik 34ra bitarteko gazteen artean plan berezi bat egin nahi dugu, % 4,75ko kreditu bigunekin. Beraz, aurten adjudikatzen hasiko diren etxebizitzei dagokienez, gazteek izango dute lehentasuna.



- Bergaran etxebizitza gehiago egiteko asmorik?

- Bergarako Udalarekin kolaboratzeko prest gaude eta beste 40 etxebizitza egiteko akordioa hartu dugu. Eta jendeari hauxe esan behar zaio: etxebizitza hauek merkatuan aurki daitezkeen etxebizitzaren parekoak direla.

"Beste 40 etxebizitza sozial egiteko akordioa hartu dugu Udalarekin"

I T U R R I O N E T I K

Pol-Pol Mendizale Taldeak fanzinea kaleratu

Pol-Pol Mendizale Taldeko eskalada sailak "Gailur" izenburuko fanzinearen ale berri bat kaleratuko du datozen egunotan. Orain 4 bat urte irten zen kalera fanzine honen azken zenbakia eta oraingo hau "Gailur"en 6. zenbakia izango da. Printzipioz, 100 aleko tirada izango du eta, 28 orrialdetan, mendiaren inguruko hainbat gai jorratuko dituzte Pol-Polekoek. Fanzinea 250 pta. ren truke eskuratzeko herriko hainbat taberna eta dendatarak jo dezakezue. Badakizue, agortu baino lehen...

E S A N
D U T E

"Kontsumitzaileen eskakizunei aurrea hartuz bilakaera bat izatea Ibiliren lehendabiziko helburua izaten jarraitzen du. Helburu horrek etengabe hazi eta geure maila gaitzera behartzen gaitu; gure enpresa filosofiak erronka berriak onartzera bultzatzen gaitu, betiko kalitate maila mantenduz eta berrikuntza eder eta praktikoekin erantzunez, gaur eguneko etxebizitzek eskatzen duten moduan"

JOSE IGNACIO IGARZA
IBILiko Gerentea
EL DIARIO VASCO

"Aste honetan jakin da Bosniara bidalitako soldaduak estafatu egin zituztela. Euren soldadak mando militarrek kobratu zituzten. Baina, nere ustez, soldaduskara borondaterik gabe, behartuta eta askotan beldurtuta eramaten dituzten gazte guztiak estafatzen dituzte, bakoitzak bizitzeko urtebete osoa galtzen baitu"

JON ALTUNA
Kazetaria
EGIN

Jauregia, 20.570 Bergara.
faxa: 76 03 97

Elkarlanean:

Elkarlanean, 13. 20.570 Bergara.

19 08 19

Elkarlanean:

Elkarlanean.

Elkarlanean:

Elkarlanean, Eduardo Mendibil eta Elkarlanean.

Elkarlanean:

Elkarlanean eta Eduardo Mendibil.

Elkarlanean eta harpidetzak:

Elkarlanean eta Gorka Elorza.

19 03 97

Elkarlanean:

Elkarlanean, Angel Mikeo, Estepan Plazaola,

Elkarlanean, Angel Elkarlanean, Alex

Elkarlanean, Inaki Eraña, Juan Martin

Elkarlanean, Josu Oregi, Maripi Laskurain,

Elkarlanean, Aizelai, Ainhoa Lete, Jon Ander

Elkarlanean, Mikel Lizarralde, Monika

Elkarlanean, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa

Elkarlanean.

Elkarlanean eta marrazkiak:

Elkarlanean, Rodriguez, Gorka Ortega, Jon

Elkarlanean, Jose Martin Ezenarro

Elkarlanean, Julian Ezenarro.

Elkarlanean:

Elkarlanean, Taldea.

Elkarlanean: 3.700 ale.

Elkarlanean:

Elkarlanean, E. (Zubillaga. Oñati).

Elkarlanean: BERRIGARA

Elkarlanean: SS 50/ 91

Elkarlanean: 1130-6599

Elkarlanean ez du bere gain hartzen

Elkarlanean adierazitako esanen eta iritzien


Elkarlanean.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du



FRESA Y CHOCOLATE

Ostirala: 22.30
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.
(Ikuslearen Eguna).



EL SOTANO DEL MIEDO

Osteguna: 20.00.

Zinea

▼▼ **Tomás Gutiérrez Alea**
zuzendari kubarrak (berari eskeinitako ziklo bat ikus daiteke TVE-1n) hainbat nazioarteko sari lortu ditu filme honekin. Orain urte batzutako Kuban girotua eta ikasle eta artista homosexual baten arteko erlazioa aitzakitza hartuz, sexu diskriminazioa aurkezten zaigu.

▼▼ Beldurrezko filmeen zikloari amaiera emango dion filma. **Wes Cravenek** (*Pesadilla en Elm Street*) zuzendua eta **Brandon Adams** eta **Everett Mc Gill** aktoreak erreperto buruan. Filmearen publizitateak dioenez, auzo danetan etxe beldurgarri bat omen da... Sartzeko beldurrik?

Deiak

▼ **Gorka González**en koadro erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Ortonovoko** artisten erakusketa igandera arte Kultur Etxean.

▼ **Luis Fernández**en "Emakumea eta kirola" hitzaldia ostegunean 15.30etan Kultur Etxean, JARDUNek antolatuta.

▼ **Jose Maria Incertis**en "El método Silva de control mental" ostegunean 7etan Kultur Etxean.

Ogia


▼ **Igandea 12:** Ogizun.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 11:** Estella.
- ▼ **Igandea 12:** Estella.
- ▼ **Astelehena 13:** Mozos.
- ▼ **Asteartea 14:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 15:** Puy.
- ▼ **Osteguna 16:** Guallar/Morales.
- ▼ **Ostirala 17:** Estella/Español.

MURUAZPI SAGARDOTEGIA

San Inazio, 25 - Legazpi • Tf. 73 33 26



MENUAK SAGARDOAREKIN

- Menua 895 pezetetan, astelehenetik ostiralera.
- Kaxuelatxoak, entsaladak.
- Afari merkeak.
- Egunero irekiko dugu, astearteak ezik.
- Aurrez eskatuz gero, oilaskoak edo arkumea egurrezko labean.
- Igandetan, 11etatik 1era **hamaiketakoa**.

Igandean, Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastolek eta Xamatz dantzataldeak antolatuta, XXI. Haurren Euskal Jaia ospatuko da Bergaran. Guztira, 12 talde izango dira goizean goizetik herriko kaleak alaitzen: Ereintza (Orereta), Gorosarri (Eskoriatza), Loramendi (Aretxabaleta), Irain (Lesaka), Oinarin (Antzuola), Txikitxu (Arrasate), Lurra (Urretxu), Soraluzeko Ametsa, Lore Gazteak (Arrasate), Oñatz (Oñati), Mendaroko Gazteak eta Bergarako Aranzadi Ikastola.

XXI. HAURREN EUSKAL JAIA

Gipuzkoa eta Nafarroako 12 talde

Igandean herriko kaleetan zehar



Goizean kaleetatik zehar ibili ondoren, arratsaldeko 5etan, dantza agerraldia Plazan.

Ibon Unamuno Xamatz dantzataldeko kideak azaldu digunez, "400 bat dantzari etorriko dira, 7-14 urte bitartekoak denak eta bazkaria herriko etxe ezberdinetan izango dute. Jendeak aurten ere laguntza baundia eman digu. Fextarik egokiena den? Azkenaldian Pazkuak baino astebete lehenago izaten zen baina aurten atzeratu behar izan dugu jaunartzeak zirelako. Dena den eguraldi eguzkitsua egiten badu askoz ere jende gutxiago izaten da berrian. Onena egun lainotsua izatea".

Igandean goizeko 10etan talde guztiak Seminarioan bilduko dira, 10.30etan Santa Marinako parrokiaren meza izango dute, 11.30etan Seminarioko futbolzelaira kalejira egingo da, ondoren bokadilloak banatuko dira eta, 12etan bertsolariak

eta alkate/alkatesa txiki-en ongi-etorria eta eguerdiko 12.30etan, kanpoko eta bertako dantzariak beraien dantzak eskeinitako dituzte herriko kaleetan. Ordu bete berandua go, hainbat dantzataldek beraien dantza bereziak dantzatuko dituzte eta jarraian, ordubietan, bazkaria izango da.

Arratsaldean, 16.30etan Seminarioa kalejira eta 5etan dantzen alardea txistulari guztien partaidetzarekin. Mutilek Makil Haundi dantza, Txaka-

rrankoa eta Banakoa egingo dituzte eta neskek, aldiz, Gipuzkoako Zinta-dantza, Kontrapasa eta Arku-dantza. Ondoren guztiek Domingillo eta Gorulari eta Larraindantza dantzatuko dituzte. 6etan *Askek* antolatutako jokoak izango dira eta 7etan jaialdiari bukaera emango zaio. Egunean zehar Musika Eskolako txaranga, Kobok dultzaineroak eta Moises Aspiazu dantzataldeko eta Jarduneko trikitilariak arituko dira herriko kaleetan.

400 bat neska-mutikok hartuko dute kalea hauteskunde egunean

Zure konfidantzako denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Intsumisioa eta Gurutze Gorria

Deba beheko eta Garaiko "Intsumisioen eguna" ospatuko dugu larunbat honetan Arrasaten. Kakitzat koordinadoran batuta gabiltzan zona honetako talde antimilitaristek, egun honetan, arreta berezia jartzea pentsatu dugu Gurutze Gorriak Deba arroan dauzkan postuetan abjetoreak hartzerakoan sortarazten duen egoera larriari.

Horrekin ez dugu nahi, inolaz ere, Gurutze Gorriak gure herrietan egiten duen lana kritikatzetik ezta gutxiestetik ere. Baina, oso grabetzat jotzen dugu Gurutze Gorriak bertan lan egiteko abjetoreak hartzeko Gobernuarekin egiten duen akordioa. Eta egoera hori larriagotu egiten da eskualdeko hainbat abjetore, kontzientzi antimilitarista dela eta, Ordezko Prestazio Soziala ez betetzera behartuta daudela ikustean. Horren ondorioz, abjetore hauek justiziarekin topo egiten dute, eta 2 urte eta 4 hilabete eta egun bateko zigorpean daude.

Sarri askotan iritzi okerrak sortzen dira komunikabideetan agertzen diren deklarazioen bidez, Gurutze Gorriak abjetoreak onartzeko hartu duen jarrerarekin ejerzitoak inolako zerikusirik

ez duela agertzean. Gizarteko sektore askok inolako zalantza barik onartzen du Gurutze Gorriak ez daukala inolako kutsu militaristarik.

Guzti horrengatik, berriz ere, salatu behar dugu kontzientzia eragozleak Ordezko Prestazio Soziala egin beharrean aurkitu ohi direla, Soldaduskari uko egin nahian. Zerbitzu zibil bat egitera behartzen dira, gartzelara sartzeko mehatxupean. Gurutze Gorrian, beharbada, ez dira kuarteletan bezain zorrotzak, autoritarioak eta hertsia izango lanak agintzerakoan, baina militarrek eta behartutako zerbitzu militarra izan ezean, Gurutze Gorriak boluntarioekin lan egingo luke, izaera soziala edo humanitaria duten beste hainbat erakundek egiten duen moduan.


Eta horretan jarri nahi dugu enfasi gehien, izan ere Gurutze Gorriak "boluntario" hitza erabiltzen baitu sarritan abjetoreei deitzeko; beren egoerari irtenbiderik erosoena ematearren hurbilen daukaten Gurutze Gorriaren egoitzan Prestazio Soziala egiten duten abjetoreak hain zuzen. Gure jarra antimilitarista eta gizartea hobetzeko dugun konpromezua kontutan harturik, gure ustez, Gurutze Gorriak erabiltzen duen "boluntario" hitz horrek bere zentzua galdu egiten du. Boron-

datetzarik ez dago gartzelaratzeko zigorraz mehatxu egiten denean edo, dirudien bezala, eskubide batzuk kendu eta ezgaitzen gaituztenean? Halere, ez gara lan hauek egitearen kontra agertzen, baina gure ustez, hauek zentzu osoz egitekotan norbanakoaren kontzientziari kaso egin beharra dago, bestela ez dira bat etorriko elkartasuna, kooperazioa, eta humanitaria eta langintza zibiko-sozialak.

BERGARAKO OBJETORE TALDE ANTIMILITARISTA

Tiira biraka

BITTOR RODRIGUEZ





Orain dela urtebete, ekainaren 6an, izan ziren azken bozketak, Estatu mailakoak.

hiritarrek izango dute hitza.

Bergaran (15.576 biztanle), 13.000 lagunek izango dute botoa emateko aukera. Horietatik 7.800 emakumezkoak dira eta 7.776 gizonezkoak. 1976an jaiotakoek hauteskunde hauetan izango dute botoa lehen aldiz emateko aukera.

Seminarioan, kalekoak, Elosukoak eta Bolu aldekoak botatuko dute (5.833 lagunek dute botoa emateko eskubidea); Ibaiondon, Zubieta, San Lorenzo, Basalgo, San Juan eta Uberakoek (1.462); Martokon, Mintegi, San Antonio, Martoko edota Zubiaurrekoek (2.027); Ibarra, Labegaraia, Ibarra, Ozaeta, Elorregi edota Angiozarkoek (1.074) eta Osintxun, Murinondo, San Anton edota Osintxu bertakoek (573) eta Matxiategin Poligonokoek (2.123)

Hautesontziak goizeko 9etan zabaldu eta iluntzeko 8etan itxiko dira.

Hautesontziak prest

13.092 bergararrek dute botoa emateko aukera

Igandea bozketa eguna dugu, Europako parlamentuko ordezkariak hautatzeko eguna. Europako Ekonomia Elkarteko

12 estatutako hiritarrek hurrengo bost urterako euren ordezkariak hautatzeko dituzte bozketak hauetan. Bi astetako

hauteskunde kanpaina ofizialean partidu politikoetako ordezkariak eta hautagaiek berrikerian jardun badute, igandean

San Martzialetarako mahaiak

Uztailaren 3an ospatuko den San Martzialetako erromerirako mahai hartu nahi duten kuadrilek Kultur Etxean eman dezakete izena, astelehenetik ostiralera egun osoan zehar. Zortzi lagunentzako mahai (aulki eta guzti) bakoitzak 1.500 pta. balioko du. Mahai kopurua mugatua denez, lehen bait lehen izena emateko eskatzen da. Bestalde, kuadrilen arteko sokatira txapelketan, gizonezkoetan 8 talde eta emakumezkoetan 4 izango dira (talde bakoitza 8 lagun ez osatua). Antolaketa hobea izateko, taldeek aurrez Kultur Etxean izena emateko eskatzen da.



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

antzinako gauzak
dekoratzeko ideiak

Rincones

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxe: 76 52 98



Alkateak Mintegi kalean dagoen San Martin Agirreri buruzko plaka bistaratu zuen.

Kirol eta jolas zelai berriak

Mariaren Lagundiko instalazioak inauguratu ziren

Igandean Mariaren Lagundiko kirol eta jolas zelai berriak inauguratu ziren. Bertan, besteak beste, Mari Sol Iriondo Zuzendari Pro-bintziala eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan ziren eta aureskua dantzatu eta ohizko zinta moztu ondoren, pistak inauguratutzat eman ziren. Jarraian Mintegi kalearen amaieran, San Martin Agirre ermita zegoen lekuan, plaka bat bistaratu zuen Victoriano Gallastegi alkateak. Ermita hau XVIII. mendean egin zen eta gaur egun, bertan egin den frontoiko

errebote paretean, Gipuzkoako armarrria, gurutzea eta dintel grabatu bat bakarrik gordetzen dira.

Ondoren, ikastetxeko Gimnasio berriztua eta aldagela berriak bisitatu zituzten agintariek.

Horrez gain, jai egun haundia izan zuten Mariaren Lagundian igandean. Egunean zehar, hainbat ekitaldi antolatuta ziren: kukañak, umeentzako parkea, paella lehia-keta, txirindulari karrera, gimnasia erritmikoko erakustaldia edota dantzaldia eta primeran igaro zuten eguna bertara inguratutakoek.

◆ Intsumisioaren eguna

Deba Behe eta Garaiko Intsumisioaren Aldeko Eguna izango da larunbatean, hilak 11. Eguerdiko 12etan Plazatik bizikleta martxa aterako da eta ondoren, Arrasaten, herri guztietako jendea bilduko da. Egunean zehar Arrasaten bertan poteoa, herri bazkaria, antzerkia, musika, kontzertua Gaztetxean eta beste hainbat ekitaldi iragarri dira.

◆ Araba Euskaraz

Ekainaren 19an Lapuebla de Labarkan izango den Araba Euskaraz-era joateko autobusak antolatu dira. Irteera 9etan egingo da. Izen-ematea (750 pta.) Aranzadi Ikastolan edo Euskara Zerbitzuan. Bezperan jai honen antolaketan parte hartzeko interesa dutenek 76 08 19 telefonora dei dezakete.

◆ EAJren Uri Batzarra

Bergarako EAJren Ez-Ohizko Uri Batzarra ostegunean, hilak 16, 8etan Batzokian.

◆ Zozketa

Julian Bernalen aldeko zozketan 6.584 zenbakiak (Margari Imazena) lehen saria lortu du. 682 zenbakiarentzat izan da bigarrena. Antolatzaileek guztion kolaborazioa eskertu dute.

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K

KIZKUR




Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

ETXAGI

Jatetxea
Afariak-Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak-Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.
Fatxadak, eskaparateak...

Amilaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

HITZALDIAK

JARDUN Elkartearen eskutik

EKAINAK 16, OSTEKUNA

Emakumea eta kirola

Hizlaria: Luis Fernandez (Kirol teknikaria)

Ordua: Arratsaldeko 3.30ak

Tokia: Kultur Etxea

EKAINAK 23, OSTEKUNA

Gorputza, sentimenduak, osasuna


Hizlaria: Itziar Larrañaga (Mediku higienista)

Ordua: Arratsaldeko 3.30ak

Tokia: Gartzela Zaharra

ANTOLATZAILEA: **LAGUNTZAILEAK:**

EKAINAK 30, OSTEKUNA



**Bergarako
Udala**

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ekologia etxean

Hizlaria: Aitor Aranzabal (Eguzkiko kidea)

Ordua: Arratsaldeko 3.30ak

Tokia: Gartzela Zaharra

E
K
A
I
N
E
A
N



E
K
A
I
N
E
A
N



Benito, Daniel eta eta Agustinek sari ugari irabazi dituzte. Beheko argazkian Bartzelonan saritutako Agustinen argazki bat.

Pol-Pol Argazki Taldeko kideek adierazi digutenez, "sari hauek taldeak azkenaldian eta batez ere mendiko argazkiei dagokienez lortu duen maila bikaina baieztatzen du, hala frogatuta geratu baita izandako mendiko argazkien argazki lehiaketa ezberdinetan: Iruñea, Gasteiz, Bilbo, Legazpi, Majadahonda, Martorell..., etab. luze batean".

Bartzelonako hau Estatuan eta Europan antolatzen diren lehiaketen artean garrantzitsuenetarikoa omen da; "ez da diru saririk egoten baina ospe haundiko lehiaketa da eta guk Argazkilaritza Artearen Nazioarteko Federazioaren erizpideen arabera egiten dugu lan. Pozgarria izan da guretzat" adierazi digute Pol-Poleko kideek. Lan sarituak katalogo batetan jasoko dira.

Bergarako lau argazkilari Bartzelonan sarituak

Benito Cantero, Agustin Gurrutxaga, Daniel Santos eta Ioseba Egibar

Benito Cantero, Agustin Gurrutxaga eta Daniel Santos Pol-Pol Argazki Taldeko kideak eta Gasteizen bizi den Ioseba Egibar bergararrak emaitza bikainak lortu dituzte Kataluniako Zentru Eskurtsionistak, Argazkilaritza Artearen Nazioarteko Federazioaren laguntzarekin, antolatutako IV. Mendi Argazkien Nazioarteko Saloian. Mundu osoko 24 naziotako argazkilariek hartu dute parte kategoria ezberdinetan: zuribeltzean 91 partaide (Estatuko 31) eta 328 lan aurkeztu dira, koloretan 118 partaide (Estatuko 47) eta 414 lan eta azkenik, diapositibetan,

155 partaide (Estatuko 40) eta 620 lan.

Ioseba Egibarrek koloretako 4 argazkiko bilduma onenaren Argazkilaritza Artearen Nazioarteko Federazioaren lehen saria lortu du eta Benito Canterok, berriz, diapositibetan sari bera eskuratu du.

Zuribeltzean, Agustin Gurrutxagak lan onenari zegokion Kataluniako Zentru Eskurtsionistaren lehen saria eraman zuen, eta Benito Canterok Nazioarteko Federazioaren Aipamen Berezia merezi izan zuen.

Koloretan, Benito Canterok Zentru Eskurtsionistaren bigarren sa-

ria irabazi zuen eta Daniel Santosek Estatuko argazkilariei zuzendutako Kataluniako Federazioaren domina.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF SERVICE-A

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

Elikadura

Kontuz janariekin

- **Janariei dagokienez, zein arrisku dago uda garaian?**


- Janariak sortarazitako infekzioen ugalketa dugu aipagarriena. Gehiagotan jan ohi dira erositako elikagaiak: esate baterako, errepede ezteetan egoten diren saltzailerei erositakoak. Eta udako tenperatura oso egokia da mikroorganismo patogenoak ugaltzeko, baita hasiera batean gutxikoak diren elikagaietan ere. Hortaz, udako hilabeteetan, askoz ere haundiago da infekzio toxikoak harrapatzeko arriskua.

- **Eta zergatik ugaltzen dira bakteria patogenoak?**

- Arrazoi asko dira: elikagaiak hotzetan ez izatea (5 °C azpitik ez dira ugaltzen); janaria prestatu eta jan bitarteko denbora luzea izatea; janari gordinak jatea; entsalada, marrubi, etab. ak gutxi garbitzea edo elikagaiak kutsatuta egotea ondo garbitu gabeko tokian egoteagatik.

Ezin dugu ahaztu zen-

baitetan "eramaile osasuntsuak" ere izan daitezkeela kutsatzeko bide. Kasu batzutan, salmonelesia pasatu eta osatu diren pertsonak, beren hesteetan hilabetetan izan ohi dituzte bizirik gaitz eragin dezaketen bakteriak; beste batzutan, aldiz, ustez osasun onean egon eta salmonela iza-




AMAIA AGIRRE
(elikagaien zientzia eta teknologia ikaslea)

tea. Bi kasuetan kakatan egon ohi dira salmone-lak, eta baita gaizki garbitutako eskuetan ere.

- **Zer da salmonela?**

"Udan askoz ere haundiagoa da infekzio toxikoak harrapatzeko arriskua"



Salmonelosiaren prebenitzeko elikagaiak ondo frijitu eta egosi behar dira.

- Infekzioaren ohiko ondorioak liseri-bidean sortutako gaisotasunak izaten dira; janaria jan eta hurrengo egunean nabarmentzen dira ondorioak, geroago antzeman ohi diren sintomen artean: artikulazioak haunditzea, artritis geldiarazleak...

- **Eta prebenitzeko zer?**

- Horien ugalketa murrizteko bide bat animalien hazkuntza fasean prebenitzeko egitea izango litzateke; gizakiok, kasu gehienetan, hazkuntza fasean kutsatutako okela eta arraultzak jatean kutsatzen baikara. Oso kontuz ibili beharra dago ondorengo janariekin: entsaladak, moztutako egoskari eta legunbreak, marrubiak, mariskoak, maionesak, saltsa biarnotarrak, mouss-a, hegaztietan zati gordinekin etxean prestatu ohi diren janariak, eta arraultza gordinekin egin ohi diren txokolate-moussa edo beste postre batzuk. Salmonelesia prebenitzeko metodoak: prestatutako janariak edo freskuak hotzetan eduki (kanpoko hotz-beroa arriskutsua da eta), elikagaiak frijitu edo egosi, ondo garbitu gordinik jan behar diren janariak eta maionesa juxtu jateko orduan egin eta hozkailuan sartu. Eta hurrengo egunean urgabetu.

BERGARA
Karrozeria
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

ARDATZA
Brikolaketak
Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Ginekologia

zerbitzua aztergai

Arazoak txanda hartzerako orduan

Hasera batean zerbitzu ginekologikoa gure bailaran esku pribatueta zegoen, baina 1980tik aurrera Osakidetzak hartuko du bere gain. Orain Arrasateko ospitalean 5 medikuko taldea dago osatuta eta astean zehar, Aretxabaleta, Oñati, Arrasate eta Bergarara joaten dira.

Lan horrezaz gain mediku talde horrek guardiak, kirofanoa, erditzeak eta Arrasateko ospitalean izan behar dira. Talde horren zuzendaria Jose Joaquin Astola ginekologoa da eta berak esan digunez bisita horietan planifikazio familiarra eta errebisio ginekologikoak dira egiten dituzten lanak. Halere Astolak dioskunez: "arazo larriren bat dagoenean, berehala Arrasateko ospitalean hartzen ditugu eta beste kasu batzuetan, larri-larriak ez direnak, baina 2 edo 3 hilabete itxaron ezin dutenak, 10 egunetako epean hartzen ditugu Arra-



EMAKUNDE


Azken urteetan mamografiak eta menopausiaren tratamenduak areagotu egin dira.

Herriko emakumeek ginekologoarengana joateko azterketa normal egitera bost hilabete itxaron behar dute. Astean zehar ginekologoak bi aldiz etortzen dira Arrasateko ospitaletik eta dagoeneko azarora arte ez dago tokirik. Arazo horri buruz gehiago jakiteko asmoz mediku eta emakume taldeekin izan gara.

saten. Azken kasu horretan, mediku normalek edo matronak bidaltzen dizkigute gaisoak". Azken bi urteetan Astolaren

ustez ginekoloarengana joateko eskakizunek nabarmen gora egin dute. Hori horrela izateko faktore batzuk azaldu dizki-

gu: "Lehenik eta behin arazo ekonomikoa dago, lehen mediku pribatuengana joaten zen emakume asko, orain guregana



GAZTELU
Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Aldoka
Maldoka
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

etortzen da. Menopausia-
ren tratamenduak ere de-
manda asko igo du. Orain arte menopausiak
ez zuen tratamendu be-
harrik, gaur egun emak-
ume asko etortzen da
menopausia dela eta. Az-
kenik bularreko azterke-
tak ere asko igo dira.
Emakumeak ikusten du
borrekin bularreko min-
bizia lehenago hartu dai-
tekeela eta lehen 3 edo 4
urtetik bein etortzen ba-
ziren, orain sarriago
etortzen dira".

**Lista itxiak
amaitu dira**

Kontuak kontu emak-
ume batek ginekologo-
arengana joan nahi badu
azterketa normal bat egite-
teko, 6 hilabete itxaron
behar ditu. Baina duela
bi hilabete arte edo, lista
itxiak zirela eta, emaku-
meei ez zieten txandarik
ematen ordu guztiak be-
teta baitzeuden. Lista itxi-
en zergatiari buruz gal-
detu diogu Astolari. "Ara-
zoa da gu, Deba Garaia

atenditzeko, 5 mediku
bakarrik gaudela eta epe
luzera ez dakigula zer
gertatuko den. Desber-
dina da Cruces eta bo-
rrelako tokietan, hor 25
edo 30 ginekologoko tal-
deak dituzte eta norbai-
tek buts egiten badu or-
dezkoa dute. Gu saiatzen
gara planak abalik eta
epe luzeenera egiten, bai-

abide teknikoak eta zer-
bitzuaren kalitatea ona
dela esan digu Astolak.
"Baliabide onak ditugu,
egunero 7 mamografia
egiten ditugu eta mamog-
rafiak egiteko bilabete
bateko atzerapenaz ba-
karririk gabiltza eta laister
minik gabeko erditzeak
egiten hasiko gara. Ha-
lere errebisio normalak

izan zen eta aurten kon-
sulta zerrendak jeisteko
helburua dago".

Astero 135 emakume

Gure herrian emaku-
meek lehen kontaktua
gehienetan Ana Aiastui
matronarekin izaten du-
te. Matronaren lana, bes-
te gauza batzuren artean,

**"Astean zehar 35 emakume pasatzen
dira kontsultatik"**

na beti daude arazoak.
Orain listak zabaldu
egin ditugu eta saiatuko
gara demanda guztia
atenditzen. Halere etor-
kizunean eskaera handi-
tuz badoa, irtenbideak
aurkitu beharko genituz-
ke. Lista itxiak guretzat
ere txarrak dira, emaku-
meak guregana etorri be-
harrean beste leku batzu-
etara joaten dira eta".

Ginekologia zerbitzu-
an jasotzen dituzten es-
kaerak asko badira, bali-

egiteko eskaera asko di-
tugu eta Osakidetza jo-
dugu arazoa azaltzera
irtenbideren bat topatze-
ko, baina arazo hau ez
da bakarrik Deba Gara-
ian ematen beste toki ba-
tzuetan ere ematen da.
Gainera gure bailaran,
beste eskualde batzure-
kin konparatuz, emaku-
mea gehiago joaten da
ginekologoarena. Pasa-
den urtean Osakidetza-
ren helburuetariko bat
lista kirurjiko jeistea


herriko emakumeen his-
toria klinikoa egin eta gi-
nekologo arengana
joateko txanda zehaztea
da. Aiastuik aitortu digu-
nez orain demanda izu-
garria dago ginekoloa-
rengana joateko: "Astean
zehar 35 emakume pa-
satzen dira kontsultatik
eta bataz beste hilebete
batean 135 emakume in-
guru pasatzen dira. De-
manda dela eta orain
txanda eskatzen duenak
azaroan izango du gi-
nekoloarengana joateko
aukera".

Beraz, bataz besteko
horri jarraituz orain ze-
rrendan, itxoiten, 600
emakume inguru daude.
Medikuak astelehen eta
ostegunetan etortzen dira
gure herrira goizeko
9.30etatik eguerdiko
12.30ak arte.

"Masifikazioa arazo-
a da, baina hori konpo-
ntzeko beharrezkoa da,
Bergarak duen biztanle-
go kopurua ikusiz, kont-
sulta ordu gehiago izat-
ea" dio Aiastuik. Matro-
naren lana historia klini-
koak egiteaz aparte, an-
tisorkuntza metodoak
azaltzea eta erditze au-
rretiko eta osteko progr-
mak lantzea ere bada. Ha-



Astean zehar bi aldiz etortzen dira ginekologoak Bergarara eta emakumeek bost hilabete
itxoin behar dute txanda hartzeko.



Jose Joaquin Astola Arrasateko Ospitaleko ginekologia zerbitzuko zuzendaria da.

bakarrik izatea gutxi dela eta sinadurekin batera gutun bat bidaliko diogu Osakidetzari" diosku Aitziber Alberdi osintxuarrak.

Ongizate Zerbitzuak, Jardunek eta Egizanek asotelehenero bilerak egiten dituzte eta bertan zerbitzu ginekologiaren inguruan kexak jaso dira. Marije Unamuno, Ongizate Zerbitzuko teknikariarekin izan gara eta berak adierazi digunez. *"Zerbitzuan kexak jaso ditugu, batez ere txanda hartzeko asko itxaron behar dela, esate baterako emakume batek 9 hilabete pasatu zituen txanda lortzeko".*

Egoera ikusirik emakume talde honek oraindik zehaztu gabe dauden ekingintza batzuk aurrera eramateko asmoa du.

lere aitortzen digunez, lanez gainezka dago bera ere.

"9 hilabete zai"

Bestalde Osintxuko emakume talde bat, gi-

nekologia zerbitzuaren saturazioa ikusiz firmak biltzen hasi da gauzak hobetzeko eskatzeko. Guztira 3 astetan Osintxun 72 firma batu dituzte. *"Auzoan bularreko minbiziari buruzko txarla bat*

izan zen eta hemengo kontsulta ginekologikoak 5 hilabeteko epeaz ematen duenez txanda, eta minbizia kontrolatzeko inspektzioa beharrezkoa denez, pentsatu genuen Bergaran bi egunetan

MULTISOL, MODAK ZURI BEGIRATZEN DIZUNEAN



BEGIRA IEZAIOSU MODARI MULTISOL BATZUEKIN. DISEINURIK ERAKARGARRIENAK, PREZIORIK ONENENKIN: 1.950 pta.n ETA BEHAR IZANEZ GERO, KRISTALAK GRADUATUKO DIZKIZUGU. IKUS DEZAZUN! EZ ZALANTZARIK IZAN, MODAK ZURI MULTISOLEN BITARTEZ BEGIRATZEN DIZU. Eeko ARAUDIAREN ARABERA HOMOLOGATURIKO KRISTALAK.

GARANTIA OSOA
1.950 pta.n



BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

BETAURREKO PARE BAT EROSTEAGATIK, KAMISETA BAT OPARITZEN DIZUGU

Igandean botoa ematera joango zara?



Nerea Reparaz

22 urte, langabetua

Kanpora noa baina ailegutzen banaiz, bai. Orainarte joan izan naiz baina aurten ez dut botoa erabaki; garrantzi gutxiago daukatela uste dut.



Iñaki Martínez

38 urte, langilea

Bai. Beti eman izan dut botoa. Baina hauteskunde hauetan jendeak beharbada gehiago pentsatuko du politikoen promesekin aspertuta baitago.



Koro Ortiz de Urbina

38 urte, langilea

Ez zait burutik pasa. Aurrekoetan botatu izan dut baina aurten abstenitu egingo naiz, ez baitut batere garbi ikusten.



Iñaki Sáez

26 urte, langilea


Ez joatea erabaki dut. Hauteskunde europarrak garrantzi gutxiago daukatela uste dudalako eta ez nautilako konbentzitu.



Miren Badiola

36 urte, langilea

Bai, botoa erabakita daukat gainera. Nere ustez hauteskunde hauek badute bere garrantzia.



Benito Dávila

39 urte, langilea

Bai, beti joaten naiz. Botoa aldatu izan dut baina beti aurretik erabakitzen dut, aurten bezala. Botoa beti eman behar dela pentsatzen dut.

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

LITAR

altzariak


Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



Gizartea, ikastola eta kirola

Gure gizartean azkenengo hamarkadan eman diren aldaketa sakonek, kirolean ere eragin handia izan dute. Parte hartze hutsari begiratzen badiogu, sekula baino gehiago dira kirolaren era bati edo beste bati, nahiz eguneroko ekitalditan, nahiz asteburukotan, lotzen zaizkion sexu eta adin guztietako hiritarrak. Gure herrietako instalakuntzak, berriz, sekula baino ugariagoak eta hobekak dira. Urteetan zehar kirolaren etsairik amorratuena izan diren emakumeak ere, erabat hunkitzen zaizkigu Indurainen edo Berasategiren balentriak telebistaren bidez ikusten dituztenean.

Ez da harrizkoa, beraz, gurasoen gomendioa eta eliteko kirolaren urratsak jarraituz, ikastolako adin desberdinetako 319 neska-mutikok, Udalak, klubek eta ikastetxeek antolatutako txapelketetan parte hartu izatea. Batzuk oso emaitza onak lortuz Gipuzkoako txapelketak barru (eskola kirolaz ari naiz soilik), eta besteak, euren parte hartze hutsarekin txapelketa hauek bultzatuz.

Lehiaketa kirolaren alderdi garrantzitsua izanik, txalotzekoak dira txapelketak irabazteko entrenamendu saio eta partidutan aritu direnen ahaleginak. Baina haurtzaroan egiten den kirolak beste garrantzia bat dauka. Pertsona, gizon edo emakume jator, leial eta emankor izaten lagundu behar digula. Adibide bat erabiliz, ikasleak ez du helburu bezala Maradona bat izatea izan behar, baizik eta talde baten barruan bere izerdia eta lana utziz, kirolean gizatasunez, ahalik eta ondoen egiten saiatuko den kirolaria izatea. Horregatik, helburu hori kontuan izanik, aurten parte hartu duten ikasle guztiak hurrengo ikasturterako animatu nahiko nituzke lerro hauen bidez, eta aritu ez direnei proba egin dezatela esan, gustora ibiliko direlako.

Inaxio ARREGI



Ekar ezazu eta konta dezala

Mingotek dagoeneko argitaratutako txisteagatik barkamena eskatu du. ABCko humoristak txiste "erreza" eta egin litekeen gogorrena egin zuen Muskizeko atentatuaren argazkiari "Ven y cuéntalo" slogana erantsiz. Slogan hau Eusko Jaurlaritzak gure herriak kanpian duen irudia hobetzeko bultzatu duen kanpainaren ezaugarri nagusia da.

Mingoteren jokabidea guztiz kritikagarria izanik, herri oso bat erasotu baitu, promozio kanpaina horren argudio nagusiaren ahultasuna eta arriskua begibistan utzi du. Irargarkiaren premisa hau da: kanpotarren irudimenean Euskal Herriari buruzko eritzia txarra da. Beraz, hasiera hasieratik jokaera biktimista aukeratu eta topikoak hausteko behar hori azaltzeko, sexu, arraza eta herrien arteko topiko faltsuak jartzen dira jarraian. Publizitate teknika bat, besterik ez da baina topiko hori indar daitekeen gertakizun bat suertatuz gero kanpaina hori goitik behera jausten da. Nere ustez hau ez da herri baten irudia areagotzeko bide egokiena, alde baikorrak erakutsi beharrean besteen jarrera zalantzan jartzen da eta. Herri honetan munduko onenak garelako esatetik besteak gure zoritxar guztien arduradunak direla esatera azkar asko pasatzen gara.

Bergarar batek baino gehiagok ustegabe haundi bat harrapatu izan du Bergarako foiletoak gure herritik kanpo ikusitakoan. Ez gaude ohituta. Erakundeen ahaleginetatik aparte guk ere gure herria ezagutarazten saiatu behar dugu. Nik, behintzat, errioxar lagun bat sagardotegi batera eramane nuen eta hurrengo noiz? galdetzen zuen handik ateratzerakoan. Ekar ezazu eta konta dezala.

(Ah! Espero dut Mingoteren akatsak ez duela indartuko madrildarrak txuloak direla dioen esaera. Topiko bat besterik ez da).

German LARRAÑAGA

INGELES-A-FRANTZESA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

- **NOIZ:** Ekainaren 27tik uztailaren 15era.
- **MAILAKETA PROBAK:** Ekainaren 17an.
- **MAILA GUZTIAK**
- **ADIN GUZTIAK:**

- Haurrak
- Gazteak
- Helduak

• **INFORMAZIOA:**

Bergarako UNED.

(3. pisua) ☎ 76 06 87



FS oto istema *APBéniz*

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50




Giltzen banaketa

Ostegun eguerdian **Artzamendin** egin berri diren **etxebizitza sozialetako** giltzak banatu zitzaizkien beren jabeei. Bertan, besteak beste, **Jose Antonio Matu-rana** Etxebizitza eta Hirigintza sailburua, **Victoriano Gallastegi** alkatea, Udaleko hainbat zinegotzi eta bertan biziko diren zenbait lagun izan ziren. Giltzak jaso ondoren, laister bertara bizitzera joan ahal izango dira.

Artzamendin, 28 etxebizitza sozialez gain, babes ofizialeko beste 40 egin dira. Azken hauetako giltzak irail aldera banatzea espero da.

Gimnasia erakustaldia

Igande goizean **Bolu Gimnasioko** kideek erakustaldia eskaini zuten Labegaraietako Kiroldegian. Urtean zehar egiten duten lana plazaratzeko asmoz, 70 lagun inguruk karate, aerobic, kulturismoa edota defentsa pertsonaleko ariketak egin zituzten Labegaraietan bildutako ikusleen aurrean. Saioa benetan ikusgarria suertatu zen eta Bolu Gimnasikoek sasoi onean daudela frogatu zuten ondo asko. Jarraian, indarrak errekuaratzeko, San Migel-Pe elkartearen bazkaria izan zuten.



Bolu Gimnasiokoek beren sasoi ona erakutsi zuten jendeaurrean.

BOLINTXO
*Kirola egiteko
 behar den guztia*
 Ibargarai 10,
 ☎ 76 38 32

LAZKANO
Oinetakoak
 Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
 BERGARA

FERNANDEZ

**Oihal puskak
 Oihalak**
 San Antonio, 3 Ibargarai, 2
 ☎ 76 22 93 ☎ 76 53 22



JULIO CALLEJA

Kontsumo Masterra

Ostiralean UNEDeko **Kontsumo Masterrean** parte hartu duten ikasleei diploma mak banatu zitzaizkien. Bertan izan ziren, besteak beste, **Martin Iturriria** Eusko Jaurlaritzako Komertzio eta Turismo Departamentuko zuzendaria, **Juantxo Madariaga** UNEDeko zuzendaria, **Fernando Etxeberria** Masterreko zuzendaria eta **Koldo Pereira** Udaleko zinegotzia. Guztiek bi ikasturtetan eman den Master honen garrantzia azpimarratu eta proiektu honetan sinistu dutenei eskerrak eman zizkieten. Hasierako 22 ikasleetatik 19k lortu dute diploma.

Zirkoa Bergaran

Ikusmin dexente piztu du egunotan bisitari izan dugun **Roma Zirkoak**. Asteartean funtzio bat eta asteazkenean bi funtzio eskeini ziren eta bertan, haur eta nagusiek, pailazoak, malabaristak, elefanteak..., etab.ekin gozatzeko aukera izan zuten. Argazkian, asteartean "zirkoaren majiak" sarrerak erosteko sortarazitako jende iladak.



Zertan dibardute ba?



Extremadurako Unibertsitateak antolatutako VIII. Literatur Itzulpen Jardunaldietan **Miguel Angel Elkoroberezibar** 28 urteko bergararrak, Berrigararen zuzendari izandakoak, lehen saria eskuratu du Poesi Itzulpen Lehiaketan. Ingeles Filologian lizentziatuta, Miguel Angelek Marianne Moore poetisa amerikarraren olerki bat ingelesetik euskara itzuli eta lehen saria eraman zuen. Bere hitzetan, "*Marianne Mooren olerki bori aukeratu nuen poeta interesgarria eta indar berezi batekoa iruditzen zaidalako*". Gaur egun Bera de Bidasoako Institutuan ingeleseko irakaslea da Miguel Angel.


anezka
 Udazkenerako oihalak eta lenzeria
 Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

Zatoia
 Boutique
 Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

EDURNE
 Merzeria - Lenzeria
 D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Juan Egaña 'Pitia'

Juan Egaña "Pitia" ezizenez ezagutzen dugun 55 urteko bergararra da. Gaztetan Bergara eta Arrasateko futbol taldeetan aritu zen ("medio volante" postuan argitzen digu). Gaur egun Tavex-en ari da lanean.



"Agorrosinen azken aldiz orain bi urte izan nintzen. Akziozko pelikulak gustatzen zaizkit eta gehien gustatzen zaidan aktorea, Elizabeth Taylor. Kantante bat? Elvis. Ez dakit igandean botoa emango dudan"

- Bihotza nola alaitzen duzu?
- Bizimodu ona izanda.
- Zenbat aldiz maitemindu zara?
- Nik ze dakit ba... Auskaloi!!
- Elkarteren bateko bazkidea zara?
- Pertxa eta Bergara K.E.koa.
- Agorrosinen azken aldiz?
- Orain bi urte.
- Bergarak izan duen jokalaririk onena.
- Jabier Lazkano.
- Eta entrenatzailea?
- Andres Alzelai.
- Lehengo ala oraingo futbola?
- Oso diferenteak. Oraingoa gogorragoa...
- Alkizak alde egingo du?
- Bai, Bartzelonara.
- Athleticeko presidente nor?
- Nik Lertxundi nahi nuke.
- Roland Garroseko finala

- ikusi zenuen?
- Ez.
 - Noiz jantzi duzu azken aldiz trajebainua?
 - Aurreko urtean.
 - Ze pelikulak gustoko?
 - Stallone eta Van Dammenak.
 - Aktorea bat.
 - Elizabeth Taylor.
 - Abeslari bat.
 - Elvis Presley.
 - Astebukaeran ze ordutan jaiki?
 - 9ak aldera.
 - Igandean botoa ematera joango zara?
 - Ez dakit.
 - Arretxe ala Errandonea?
 - Errandonea.
 - Botika asko hartzen duzu?
 - Batere ez.
 - Denbora librean, zer?
 - Txikito eta zerbeza batzuk hartu lagunekin.
 - Zinturoia ala tiranteak?
 - Zinturoia, mutill!
 - Sokamuturra ela entzierroa?
 - Sokamuturra, politagoa da.
 - Zertan sinisten duzu?
 - Goizetan, despertadorian.
 - Mezetara joaten zara?
 - Bodetan bakarrik.
 - Munduko zein lekutara joango zinateke?
 - Abuztuaren 16an Debara, urtero gaupasa egiten dugu eta.



IRAKASLE ESKOLA

Magisteritza Eskola honek zera jakinerazten du:

1994-95 ikasturterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela

Ikastetxe honek Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
- Hezkuntza Musikala

Informazioa:
IRAKASLE ESKOLA ☎ 943 / 71 41 57
20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)



umelaga


JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5


BERGARA

☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

ION LAZKANO

Aurreko Galde Debalden Euskal Herriaren Adiskideen aurretik Seminarioa zein erakundek zuzendu zuen galdetzen genuen. Erantzuna: **Jesusen Lagundia ordena** edo "Jesuitak" zen.

ION LAZKANOk jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **ZUBIKUA**ek emandako sari bikaina.

Zorionak **ION**i eta besteok segi jokatzeko, ea hurrengo suerte gehiago duzuen.

SANTOS
IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua,
elektragailuak, antenak, sukaldeak
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA

Tfnoa eta faxa: 76 26 10



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



ION LAZKANOK jaso du aste honetan
ZUBIKUAK emandako saria.



BERRIGARA

Hurrengo Galde Debaldeko saria
BERRIGARAK emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Ozaetako jauregi ederra badoaz poliki-poliki berriztuaz eta hartzen doan itxura eraiki zutenean bezain bikaina da. XV. mendean ahaide nagusien gerrateen bukaeran erregearen aginduz dorretxeak lehenengo pisuraino bota zituztenean, Ozaetako Jaunak gaur egun ikus daitekeen jauregia jaso zuen, baina ez zaharra zegoen lekuan gaur egun Ozaeta deitzen diogun lekuan. Aste honetako galdera hauxe duzue:

Zein jatetxe dabilta egiten Ozaetako jauregian?




izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



IPINTZAKO

nagusiendako III. futbol txapelketa

A multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
MONGATXURRA	2	1	1	0	0	4	1
TXIPIRON	2	1	1	0	0	1	0
ALTOS PORNOS	0	1	0	0	1	0	1
BILDURBAREK	0	1	0	0	1	1	4

emaitzak

MONGATXURRA • BILDURBAREK OPEL-LAM
TXIPIRON • ALTOS PORNOS

4 1
1 0

B multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
PAOK S. JUAN	2	1	1	0	0	4	0
OS JARDINEIROS	1	1	0	1	0	1	1
OSINTXU	1	1	0	1	0	1	1
Q-3	0	1	0	0	2	0	4

emaitzak

OSINTXU • OS JARDINEIROS
PAOK DE SAN JUAN • Q 3

1 1
4 0

C multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
AMILOTX	2	1	1	0	0	6	1
OGIZUN	2	1	1	0	0	3	2
A ZE FLAXA	0	1	0	0	1	2	3
UFALA	0	1	0	0	1	1	6

emaitzak

A ZE FLAXA • OGIZUN
UFALA • AMILOTX

2 3
1 6

D multzoa

TALDEA	PUNTUAK	JOK	IRAB	BERD	GALD	GOLAK ALDE	GOLAK AURKA
ARLOTEAK	2	1	1	0	0	3	0
ANGIOZAR	1	1	0	1	0	2	2
EZINLEIKE	1	1	0	1	0	2	2
PIKAPIEDRAS	0	1	0	0	1	0	3

emaitzak

ARLOTEAK • PIKAPIEDRAS
EZINLEIKE • ANGIOZAR

3 0
2 2

• partiduak •

Astelehena, 13

19.30: MONGATXURRA-TXIPIRON
20.30: OSINTXU-PAOK SAN JUAN

Asteartea, 14

19.30: A ZE FLAXA-UFALA
20.30: ARLOTEAK-EZINLEIKE

Asteazkena, 15

19.30: BILDURBAREK-ALTOS P.
20.30: OS JARDINEIROS-Q.3

Osteguna, 16

19.30: OGIZUN-AMILOTX
20.30: PIKAPIEDRAS-ANGIOZAR

• komentarioa •



Piti UNAMUNO

"Aurten federatuek ezin dute jokatu eta hori igarri da, maila jeitxi egin da eta. Bestalde, multzo batzuk beste batzuk baino orekatuagoak daude, C multzoa esate baterako oso gogorra da. Datorren urtera begira multzo buruak egin beharko liratekeela uste dut, multzoak zozketa bidez osatzea ez dut uste egokiena denik"

• golegileak •

3 GOL:

• Saez De Maturana (Amilotx)

2 GOL:

• Arroyo (Mongatxurra)
• J. Larrañaga (Arloteak)
• Nieto (Amilotx)

GOL 1:

• Torres (Osintxu)
• Zabaleta (Ogizun)
• Juani (A Ze Flaxa)



KIROL ARGAZKIAK

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak Kirol Argazkien IV. Lehiaketa konbokatu dute. Bertan Euskal Herriko edozein argazkilari afizionatuk parte hartu ahal izango du eta kolore eta zuri-beltzeko kategoriak bereiztuko dira. Lanak, ekainaren 29a baino lehen, Udal Kirol Zerbitzuan 30 x 40 zm.ko kartulinan aurkeztu beharko dira (kategoria bakoitzeko lau gehienez). Sari banaketa uztailern 15ean egingo da: kategoria bakoitzeko lehen hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pta. gehi trofeo bana eskuratu dute eta herriko onenak ere 10.000 pta. eta trofeoa eramango ditu.

ESKALADA

Beatriz Jiménezek Euskadiko Kirol Eskalada Txapelketako lehen proba irabazi zuen igandean Bilbon. Hurrengo probak larunbat honetan Elgoibarrren eta uztailaren 16an Bergaran jokatu dira.



Piraguismoa gero eta indar gehiago hartzen doan kirola da. Uda honetan praktikatu dezakezu.

Uda kanpainarekin, kirola martxan

Piraguismoa, beisbola edota kainioi jeitsiera egiteko aukera

"Udan, inoiz baino gehiago, kirola egin" lemapean, Udal Kirol Zerbitzuak, Diputazioaren laguntzaz, aurtengo Uda Kanpainako programa kaleratu du. Bertan, makina bat kirol egiteko aukera izango da, tartean beisbola, dantza, askotariko iharduerak, patina-jea, piraguismoa, abentura kirola..., etab. luze bat. Iharduera gehienak bi txandatan banatu dira:

uztailaren 4tik 15era (izen emateko epea ekainaren 30ean bukatuko da) lehen eta uztailaren 18tik 29ra bigarrena (izen-ematea uztailaren 14a baino lehen).

Kainioi jeitsiera, hidrospeeda, raftinga, etab. egun konkretuetan izango dira eta igerian jakitea derrigorrezkoa da. Uda kanpainako partaide guztiek opari bat izango dute eta iharduera guztie-

tarako joan-etorriak partehartzailearen kontura izango dira. Kirol Zerbitzuko bazkideei dagozkien beherapenak egin ahal izateko aurtengo karneta aurkeztu beharko da. Interesatuak Udal Kirol Zerbitzura jo dezakete, goizeko 8etatik arratsaldeko ordubiterdietara.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Kirol Zerbitzura deitu, 76 59 57 telefonora.

AGOITZ
Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA

• Zaharrei kasu egin eta laguntzeko zerbitzua, jende ikasiz osatua

LAGUN ZAHARRAK

• Edozein lan-ordu eta ekonomia-mailatara moldatzen gara
☎ 76 46 26 / 76 18 54
ORDUTEGIA: 13.00-13.00 / 21.00-22.00

Mujika
Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

PELOTA

Herri Arteko Txapelketan, hirugarren postua lortu zuen Bergarak, Arrasateri 2 eta 1 irabazi ondoren. Oñatin jokatu ziren partiduetan eta honako emaitzak izan ziren hiru partiduetan: Infantiletan, 8-18 arrasatearren alde; Jubeniletan 22-20 bergararrak nagusi eta Seniorretan 22-11 bergararrentzat. Bestalde, Deba Arroa Txapelketako finalak jokatu dira larunbatean Eskoriatzan. Bergararrak bi kategoritan iritsi dira finaletara, hain zuzen ere Senior eta Jubeniletan eta Arrasate eta Soraluze edota Arrasateren aurka jokatu dute finala. Infantil mailakoa Soraluze eta Elgetak jokatu dute. Eta pelotarekin jarraituz, esan dezagun, Elosuko Otaba Txapelketako finalak jokatu zirela joan zen igandean Elosuko frontoian. Promesa mailan Ander Muguruza izan zen garaile Redondori 18-10 irabazi ondoren. Beteranoetan, berriz, Muguruza anaiek eraman zuten txapela Agirre eta Olasori 22 eta 16 irabazi eta gero.

FUTBITO TXAPELKETAKO FINALAK

Larunbatean, futbito txapelketako finalak:
16.30: Madura-Tokieder (3. eta 4. postua)
17.30: Usoa-Errotagain (Finala)



Herri Olinpiadak

Bergarako Olinpiada Batzordeak antolatuta, V. Herri Olinpiadak jokatu dira Bergaran uztailearen 4tik 23ra bitartean. Herriko kuadrila guztiek izango dute parte hartzeko aukera (talde bat osatzerik ez dutenei beste talde batekin aritzeko aukera emango zaie) eta izen-ematea ekainaren 28a baino lehen egin beharko da Pol-Pol, Arrano edota Etxagi tabernetan. Mahai-jokuak, herri-kirolak, waterpolo eta boleibol txapelketak edota hockey-eskobas eta altxorraren bila izeneko jokuak antolatuko dira. Olinpiadei amaiera emateko uztailearen 23an herri bazkaria egingo da Plazan. Bestalde, Olinpidetako kamisetak 1.200 pta.tan jarri dira salgai.

52 arrantzazale lehian

Igandean, Ollagorra Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, Angiozarko errekan arrantza lehiaketa jokatu zen. Guztira 52 partaide izan ziren eta Leitzatik ekarritako 300 bat amorrain errekaratu ziren. Infantiletan (14 urtera arte) Asier Muñozek irabazi zuen (8 amorrain), Iñaki Calvo (5) eta Cristina Tejadaren (5) aurretik. Juniorretan (14 urtetik 18ra) Sergio Gallego nagusitu zen (5 amorrain), Unai Etxeberria (5) eta Mikel Ramajo bigarren eta hirugarren postuetan sailkatuz. Azkenik, 18 urtetik gorakoen artean Xabi Lópezek 6 eta Manuel Munarrirek 5 amorrain hartu zituzten. Ollagorrako kideak erabat pozik azaldu dira lortutako partaidetzarekin.



LASA

Jatetxea

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



Burgoseko penaleko preso bergararrak

Gerran preso hartuta, hiru bat urte pasa omen zituzten Burgosko penalean argazkian agertzen diren 8 bergararrok. Denak ere Eusko Gudarostean teniente edo hortik gorako graduak edukitakoak ziren. Batailoi batekoak baino gehiagotakoak dira: Amaiurrekoak, Loiolakoak, Itxarkundiakoak, etab. etakoak. Euretako batzuk batailoi batean baino gehiagotan ere ibili ziren.

Hara zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Jarrita: Lehenengoa, Markos Azkarate, Miren Azkarate euskaltzainaren aita, kapitana; bigarren, Iñaki Unzeta, Primo de Riveraren diktadura aurretioxan Bergarako lehenengo alkate abertzalea eta gero EAJko Araba Buru Batzarreko kide izandakoa, Burgostik libre utzi eta Martutenen berriro preso zegoela, ihes egin eta bestaldean erresistentzian lan handia egin zuena; eta azkenik, Lino Lazkano, komandante izana.

Zutik: Joxe Mujika, medikua, kapitan mailakoa; Ramon Jauregi, teniente; Kepa Iarza, teniente; Imanol Mujika, komandantea eta Luis Ormazabal, kapitaina.

Estepan Plazaola

Argazkia: Martin Arana

TOKI-ONA

Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

MUGICA

Goxotegia



pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...

Artekale, 3
☎ 76 10 34

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da **Jacan**, herri-erdian.
☎ 76 43 98.

Garajea salgai Santa Marin. ☎ 76 34 31.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Pisua salgai Bolu 18an.
120 m². ☎ 76 19 17.

Pisua salgai Zubiaurren.
☎ 76 25 19.

Garajea hartuko nuke
alokairuan Tokiederren.
☎ 76 52 45.

Zubiaurren **pisua** aloka-
tzen da. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibigarrai
kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Donostin,
Amara Berrin. Eguzkitsua.
☎ 46 36 53 (19-22.00).

Pisua alokatzen da Zaba-
lotegin. ☎ 76 33 93.

Pisua salgai Zubiaurre
23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi
17n. ☎ 76 10 55.

Pisu amueblatua salgai
Bolun. ☎ 761075 (gaeuz).

Pisua salgai Artzamen-
din. ☎ 76 44 60.

Pisua alokatzen da San
Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

Garajea salgai Ibigar-
rain. ☎ 76 36 69.

Pisua alokatzen da Kruz
Gallastegin. ☎ 76 11 89.

Pisua amueblatua salgai
Zabalotegin. ☎ 76 32 27.

DENETARIK

Sango remolke bat sal-
gai. Egoera onean.
☎ 76 61 74.

Korredore **bizikleta** sal-
gai (10.000 pta., alebin
neurria). ☎ 76 54 24.

Txakur Alsaciano bat
oparitzen da. ☎ 76 31 28.

Edertze aretoa traspasa-
tzen da. ☎ 76 58 88.

Kanpin denda (2 gela eta
portxea) salgai. 2 urte.
☎ 76 58 12.

Paseozko Torrot **bizikleta**
salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Enkuadernatzeko **prensa**
erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

Schnauzer txakur-kumak
salgai. Pedigreedunak.
☎ 76 48 52 (Xabier).

Gasezko sukalde indus-
triala eta hozkailua erosi-
ko genituzke merke-mer-
ke. ☎ 76 02 88.

Boxer txakur-kumak pre-
zio onean salgai. Pedi-
gree benetan aipagarria.
☎ 945-284271 (Luis Mari).

Ezkontza-eraztun bat a-
gertu da jaietan Zer Nai
tabernan. ☎ 76 18 08.

Opel Kadett 1800 salgai.
SS-AH. ☎ 76 58 28.

Alfa Romeo 33 SS-AB ko-
txea salgai. ☎ 76 02 01.

Bizikleta bat agertu da
Zuhaizti taberna aurrean.
☎ 76 59 22 (Iñaki).

Sango kanpin-erremol-
kea (2 logela) salgai.
150.000 pta.. ☎ 76 39 93.

BMW motoa (K-100 RS)
salgai. ☎ 76 12 64.

Bilbon pisua konpartituko
nuke. ☎ 76 61 68.

LANA

OHO eta **BBB**ko klaseak
emango nituzke uztailean.
☎ 76 42 08 (Nere).

Ingeles klaseak ematen di-
tut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

OHO eta **ingeles** klaseak
(maila guztiak).
☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen
ditut. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentzia-
tuak, ingeles klaseak eman-
go lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingelesezko klaseak
ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak.
☎ 76 50 67.

Ingeles klaseak ematen
ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Haurrak zaindu edota
etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 26 73.

Gutxituak, haurrak edota
zaharrak zainduko nituz-
ke. ☎ 76 52 08.

Haurrak eta zaharrak zain-
du eta **etxeko lanak** egin-
go nituzke. ☎ 76 40 94.

Hildakoak

Lucia Begiristain Usabiaga
ekainak 4, 94 urte
Sor Eufemia Barriuso Villandiego
ekainak 6, 91 urte

Jaiotakoak

Maialen Gallastegi Meabe
maiatzak 31
Julen Agirrezabal Zubizarreta
maiatzak 31
Nabia Fernández Amorrortu
ekainak 5

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

EZPELETA
etxeaHarizko eta kotoizko
goimailako izara eta
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

✓ Motorren bobinak eta
✓ Era guztiak instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behe
☎ 76 23 48



Garibai, 9 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 03
FAX: 79 14 89

etxeko ekipamendu osoa

a, eme... interiores



a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE